

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK 2021eko deialdia. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruko oharra:

DERRIGORREZ AURKEZTU BEHAR DIRENAK:

1. Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

Non eskuratu: Eskera-orria eskuratu daiteke HHZ-n edo <https://www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak>

Udal erregistroaren ordutegia: Herritarren Harrera Zerbitzuan (Gudarien plaza, 1), astelehenetik ostiralera 8:00-14:00 (azken zita 13:30ean); eta astearte eta ostegunetan 14:30-19:00 (azken zita 18:30ean). Aurretik hitzordua hartu behar da.

2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren Nortasun Agiriaren, pasaportearen edo egoitza txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria

Non eskuratu: Norberak ekarri behar du.

3. Etxebizitzan bizi diren kideen izen-abizenak eta NAREN, pasaportearen edo egoitza txartelaren zenbakia, bizikidetz-unitateko kideak izan ala ez, Udalak Biztanleen Udal Erroldan egiaztatu ahal izateko.

Non eskuratu: Norberak bete behar du eskaera-orrian.

4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia sinatua errentakide guztiek banan-banan orri guztietan.

Non eskuratu: Norberak ekarri behar du. Errentamendu-kontratua sinatua izango dute errentakide guztiek banan-banan orri guztietan.

5. Alokairu-kontratua Euskal Autonomia erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistroaren edo fidantza gordailuan utzi izanaren frogagarria.

Kontratuaren erregistroa: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Andia kalea, 13. Donostia. Bizilagun zerbitzuaren bitartez: FIDANTZEN GORDAILUA ETA HIRI-FINKEN ERRENTAMENDU-KONTRATUEN ERREGISTROA. ordutegia da, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 19:30era. Aurretik hitzordua hartu behar da (945019000).

Izapide hauek telematikoki egiteko aukera ere badago, hurrengo web helbidetan informazio guztia agertzen da:

Kontratuen erregistroari dagokionez:

https://www.euskadi.eus/web01-a2bizila/eu/contenidos/informacion/reg_contrat_2019/eu_def/index.shtml

Fidantzari dagokionez:

https://www.euskadi.eus/web01-a2bizila/eu/contenidos/informacion/fianzas_2019/eu_def/index.shtml

6. Eskatzailearen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

Non eskuratu: Norberaren bankua edo aurrezki kutxan.

7. Etxebizitza baten titularakide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
- Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.

- Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

Non eskuratu: Norberak ekarri behar du.

8. Bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarrerara eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:

8.1.- Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.

Non eskuratu: Gizarte Segurantzako bulegoa: Loiolako Erriberetan kokatuta dauden diren bulegoetan, 9:00-14:00 edo Otamendi Anaiak Kalea, 13, Donostia. [943 48 36 00](tel:943483600)
Aurretik hitzordua eskatu behar da (hitzordua eskatzeko URLa: <https://labur.eus/k1FrD>)

8.2.- 2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko diru-sarreraren frogagiriak (nominak, autonomo ordainagiria,...).

Non eskuratu:

- Besteren konturako langileak: Norberak lan egiten duen enpresan eskatu behar ditu.
- Autonomoak: Langile autonomoen gizarte-segurantza kuoten ordainketaren ziurtagiria, norberak bankuan edo aurrezki kutxan eskatu behar ditu.

8.3.- PFEZaren aitortzea egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

Besteren konturako langileak badira:

- Kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrerara gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa (10T).

Non eskuratu: Norberak lan egiten duen enpresan eskatu behar du.

- Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

Non eskuratu: Hernaniko Zerbitzu Sozialetan edota laguntzaren igorleari eskatu.

- Langabezia egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien txostena izeneko ziurtagiria.

Non eskuratu: Lanbiden altan emateko:

1. Donostia Etorbidea, 5, 20160 Lasarte-Oria, Gipuzkoa.

Arreta-ordutegia:

Negua (Urtia-Maiatza): asteleheneetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara.

Uda (Ekaina-Iraila): asteleheneetik ostiralera, 8:30etatik 13:30era.

Aurretik hitzordua eskatu behar da

https://www.lanbide.euskadi.eus/y94-qmaticap/eu/lanbidewebbooking/#/preselect/services/a728d4199900b9a4c98ac5c759433fa7c0c6c50090c844b00d6ad143bdc06819?lang=eu_es

2. Edo Interneten:

https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/!ML_INSCRIPCION_LANBIDE?LG=E&ML=OFEMEN1&MS=E

Behin altan egonda bakarrik Internet bidez eska daiteke:

https://apps.lanbide.euskadi.net/apps/GE_IDENTIFICAR?LG=E&ML=&TPRG=L

Nire Lanbidenet-en, Nire dokumentuak eta ziurtagiriak.

Arretarako telefono bat dago:

Asteleheneetik ostiralera 8:30etatik 19:30ak arte. (Uztaila eta Abuztuaren asteleheneetik ostiralera 8:30etatik 18:00ak arte). 945160600-630305452.

HERNANIKO UDALARI BAIMENA EMATEN EZ BAZAIO, EKARRI BEHARREKOAK:

1. Foru Ogasunaren ziurtagiria, errenta aitopenen laburpena izeneko, edo Foru Ogasunak igorritako informazio fiskala.

Non eskuratu: Gipuzkoako Foru Ogasuna

Dokumentazioa lortzeko modu ezberdin daude:

- Online: <https://labur.eus/2YAOp>
- Telefonoa: 943 113 000 (astelehenetik ostiralera 8:00-15:00)
- Ogasuneko bulegoetara gerturatu: Errotaburu 2 edo Okendo 20, Donostia, bestela, hurrengo herrietan ere bulegoak badaude: Azpeitia, Bergara, Eibar, Irun eta Tolosa, 08:30etik a 14:00etara, aurretik hitzordua eskatu behar da

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HICHitzorduakWEB/reservaCita/paso1>

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ogasun higiezinaren gaineko ondasun ziurtagiria.

Non eskuratu: Gipuzkoako Foru Ogasuna

Dokumentazioa lortzeko modu ezberdin daude:

- Online: <https://labur.eus/2YAOp>
- Telefonoa: 943 113 000 (astelehenetik ostiralera 8:00-15:00)
- Ogasuneko bulegoetara gerturatu: Errotaburu 2 edo Okendo 20, Donostia, bestela, hurrengo herrietan ere bulegoak badaude: Azpeitia, Bergara, Eibar, Irun eta Tolosa, 08:30etik a 14:00etara, aurretik hitzordua eskatu behar da

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HICHitzorduakWEB/reservaCita/paso1>

3. Espainiako Haziendak egindako ogasun higiezinaren gaineko ondasunen ziurtagiria.

Non eskuratu: Espainiako Ekonomi eta Haziendaren Delegazioa: Okendo kalea, 20. 943 42 99 09
Ogasuna Ministerioa 900 567 765

ZINPEKO AITORPENAK

1. Zinpeko aitortpena, Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunean daudela adierazten duena.
2. Beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) badaudela eta/edo beste erakundeetan dirulaguntza eskatu dutela adierazten duen zinpeko aitortpena.
3. Zinpeko aitortpena, orokorrean edonolako dirulaguntzak jasotzea eragozten duen egoeran ez dagoena. Halaber, oinarri hauen 4. eta 5. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko du bai eskatzaileak bai eta bizikidetzaren unitate bereko adin-nagusiko pertsona guztiek ere.

Non eskuratu: Eskaera-orrian bete.

SALBUESPEN EGOEREI LOTUTAKO DOKUMENTUAK

1. Banatzea edo dibortzioa dagoenean, hitzarmen arau-emailea eta epai judiziala.

Non eskuratu: Epaitegiak igorritako dokumentua da. Norberak ekarri behar du.

2. Etxegabetzea denean, etxegabetzea erabaki duen epaia.

Non eskuratu: Epaitegiak igorritako dokumentua da. Norberak ekarri behar du.

3. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostena.

Non eskuratu: Zerbitzu Sozialak, Sandiusterri kalea, 1, Hernani. T: 943 55 78 54

4. Hondamendia denean, Hernaniko Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena. Aurri-egoeran dauden etxebizitzaren kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.

Non eskuratu: Zerbitzu Sozialak, Sandiusterri kalea, 1, Hernani. T: 943 55 78 54

BESTE DOKUMENTUAK

1. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.